

HERRI LITERATURA



Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>

AURKIBIDEA

Argitaraldia	1.a, 2009ko abenduan
Ale kopurua	1.500 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet	www.euskadi.net
Inprimaketa	_____
ISBN	978-84-457-3033-1
Lege gordailua	_____

1.	Aita San Antonio	5
2.	Lapikotxo txurian	6
3.	Mendi altuan edurra	8
4.	Obabatxua	10
5.	Brodatzen ari nintzen	11
6.	Isabelatxu	12
7.	Kanzuriano	13
8.	Peru gurea	15
9.	Txirrita: Norteko trenbideari	16
10.	Bilintx: Izazu nitzaz kupida	19
11.	Xalbador: Sortetxeari	22
12.	Kepa eta Imanol Enbeita: Behi zarren bertsoak	24
13.	Xabier Amuriza: Gai horrek badu mamia	27
14.	Jon Lopategi: Eskalearena	28
15.	Andoni Egaña: Itsuarena	30
16.	Maialen Lujanbio: Eskutitzarena	32
17.	Aralargo txabola	34
18.	Laustaneko jauregia	35

AITA SAN ANTONIO

Aita san Antonio
Urkiolakoa,
hamaika neska-mutil, maitea,
buztartutakoa, ai ai ai.

Askok egiten deutso
san Antoniori,
egun batean joan, maitea,
bestean etorri, ai ai.

Urkiolara joanda
zapatak apurtu,
aita san Antoniok, maitea,
barriak e(g)ingo (d)itu, ai ai.

Durangon bazkalduta
Mañarian gora,
aldats haundia dago, maitea,
san Antoniora, ai ai.

Durangon bazkalduta
Txakurzulon gora,
abarka sopitea, maitea,
ipurdian gora, ai ai.

Egin, egin gazteak
egin ahaleginak,
ez jatzue damutuko, maitea,
gaur ondo egin, ai ai.

LAPIKOTXO TXURIAN

Lapikotxo txurian
okelatxo gutxi;
oraingo mutilakin
konfianza gutxi
ai, oi, ai, konfiantza gutxi,
Lapikotxo txurian
okelatxo gutxi.

Lapiko gatz gabeak
ez dauka gustorik;
oraingo mutilakin
ez dago gizonik
ai, oi, ai, ez dago gizonik.
Lapiko gatz gabeak
ez dauka gustorik

Eperrak kantatzen du
goizean ihintzetan;
ezin fia liteke
mutilen hitzetan
ai, oi, ai, mutilen hitzetan.
Eperrak kantatzen du
goizean ihintzetan.

Pikuaren hostoa
itzal egiteko;
ederregia zera
nekazaritzako,
ai, oi, ai, nekazaritzako.
Pikuaren hostoa
itzal egiteko.

Erreka baztarreko
lirio lorea;
sonbreilu zuri eta
kasaka berdea,
ai, oi, ai, kasaka berdea.
Erreka baztarreko
lirio lorea.

Mantalaren sokea
ederra gerrian;
zu baino maiteagoak
baditut herrian,
ai, oi, ai, baditut herrian.
Mantalaren sokea
ederra gerrian.

Ahuntzak adarrak haundi,
belarriak luze;
ez naiz ni maitegure
dotearen baize,
ai, oi, ai, dotearen baize.
Ahuntzak adarrak haundi,
belarriak luze.

Haizeak dantzatzen du
pago adarduna;
mutilak ez dik behar
andra alarguna,
ai, oi, ai, andra alarguna.
Haizeak dantzatzen du
pago adarduna.

Zozoa ari zera
alperrik kantari,
nere maite politak
ez du nahi etorri,
ai, oi, ai, ez du nahi etorri.
Zozoa ari zera
alperrik kantari.

Baratzeko gindea
jan det baino mina;
sekulan ez zait juango
zukanako mina,
ai, oi, ai, zukanako mina.
Baretzako gindea
jan det baino mina.

MENDI ALTUAN EDURRA

Mendi altuan edurra,
bota surtera egurra;
alaba galantan amak
mutil zantarren bildurra.

Ederregia zara zu
soloan beharrerako,
hobe da kaballeroa
kalean paseorako.

Neure nobiaren ama
asto baten jabe dana,
astoak ekarriko (deu)tso,
etxean behar dauana.

Begira nago begira
goiko kamino barrira,
noz etorriko ote dan
neure maitea herrira.

Aita gureak amari,
gona gorria ekarri,
luze dala labur dala,
garri-garritik ebagi.

Hau da pandero barria
Durangotik ekarria,
hamar erreal pagauta
dana da urregorria.

Neure laztanak jaten dau
mailukiekaz ogia,
ostera bere eukiko dau
luze ta linda gerria.

Mutil txapel gorriduna
jantzan ondo dakizuna,
zuk izango dozu emazte
dama jake zuriduna.

Mari Karmen joskilea
Mari Karmen joskilea
etxe oneko alabea,
egun baten josten ditu
prakak eta alkondarea.

Dindilin dango Mariñe
Dindilin dango Mariñe
beti honela bagine,
beti honela izateko
burua daukat arine.



OBABATXUA

Obabatxua lotiritaina
ez egin lorik basoan,
otso goseak jan ez zagizan
bildotsa zarealakoan.

Obabatxua urruru
gaur zoaz ta bihar erdu;
alboan doan tontoa baino
maiteago zaitut nik zu.

Obabatxua lologina
zu zara nire tanbolina;
tanbolina ta gaitea,
zu zara nire maitea.

Obabatxua lo ta lo
zeuk orain eta nik gero;
lotxu gozoak enganau deuste
neure umetxu ona gero.



BRODATZEN ARI NINTZEN

Brodatzen ari nintzen ene salan jarririk
aire bat entzun nuen itsasoko aldetik,
itsasoko aldetik untzian kantaturik.

Brodatzea utzirik gan nintzen amagana
hean jaliko nintzen gibealeko leihora,
gibealeko leihora itsasoko aldera.

—Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana
jin zaiten afaitera hantxet deskantsatzera,
hantxet deskantsatzera salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta igaiten da untzira,
han emaiten diote lo-belarra papora
eta untzi handian lo dago gaixo haurra.

—Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna?
Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura,
hartu nauzun lekura aita-amen gortera.

—Andre gazte xarmanta, hori ezin egina
hiru ehun lekutan juanak gira aintzina
ene meneko zira orai duzu orena.

Andre gazte xarmantak hor hartzen du ezpata
bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera,
aldiz haren arima hegaldaka zerura.

Hiru ehun lekutan dago itsas leihorra.
Oi Ama andrea so egizu leihora
zure alaba gaixoa uhinak derabila.

ISABELATXU

–Isabelatxu, Isabelatxu, arren esan bat eidazu,
atean dagoan kantore horri etor dadila esaiozu.

–Egun on asko euki deizula ontziko maisu gaztea.
–Halango asko ekar deizula linda damatxu gaztea.

–Aitak eta amak bialtzen nabe hau kantatxuau ikastera.
–Hau kantatxuau ikasi nahi badozu erdu neurekin bordera.

–Eskerrik asko mila biderrez ez dot holango usterik,
aitak eta amak etxean naukie neu ondo estimadarik.

Berbau ahotik esan bazuan ze sartu zioen kapapean,
sartu zioen kapapean ta eroan zuen bordera.

Lobedartxu bat ipini neutsen bular bien erdian
linda damea loak daroa bostehun legoa bidean.

Halan ta bere subertea zan untziek alkar jotea,
ordu hatantxe itxartu zala linda damatxu gaztea.

–Eroan naizue, eroan naizue aitaren eta amaren herrira.
–Aitaren eta amaren herrira joateko bostehun legoak behar dira.

–Untziko maisu gaztea badezu kainabetea?
–Ez daukat kainabetarik baina emongo deusut saflea.

Emon zioten saflea eta sartu eban bihotzean
ordu hatantxe hilotzitu zan linda damatxu gaztea.

–Ene mutilak, lagunak onak, zer egingo deusagu honeri?
–Intzentzoagaz intzentzatu ta erainotzagaz lurrundu,
linda damea zazpi astean geurekin erabili daigun.

–Ene mutilak, lagunak onak, zer egingo deusagu honeri?
–Emon deiogun zazpina mosu bota deiogun ureri.
Emon zioten zazpina musu bota zioten ureri.

KANZURIANO

–Kanzuriano, Kanzuriano lo bazagoz iratzarri,
–Ez nago ni lo, ez nago ni lo, moru herriko moruori.

–Nok esan dotsu neure izena, truku herriko trukuori
–Ez naz ni moru herrikoa gitxiago truku herrikoa.

Hobetoago izango naz ni zeruetako aingerua.
Jaun zerukoak bialduten nau gaur zugana mandatari.

Zure esposa doña Errosa bihar da esposa barri,
bihar da esposa barri eta bihar goizeko heldu bedi.

–Hemendik eta nire etxera bostehun legua da bide nik hareek zelan ebagi?
–Horreek ebagitearren zer emongo zeuskio zuk hari?

–Berrehun kana urre zinta Ama Graziakuari
hamalau libra argiziritxu Andra Santa Ursulari.

–Horra hor goian zazpi zaldi euretariko bategaz gau edo egun ebagi.

–Oles oles Dios te salve, nik ostatua nahi neuke.
–Hemen ez dago ostaturik eta bejioa pobreori aurrera.

–Oles oles Dios te salve, nik ostatua nahi neuke.
–Hemen ez dago ostaturik eta bejioa pobreori aurrera.

–Oles oles Dios te salve, nik ostatua nahi neuke.
–Egun okupatua dogu eta bejioa pobreori aurrera.

–Kanzuriano bizi zanean pobreak hemen baeben ostatua.
–Kanzuriano aitatu dau ta betor pobreori aurrera.

–Sillan jarri erromes hori jan ta edan bada egarri.
Oinak garbitu, painua hartun ta sikatu.

–Begiak begia badirudi, mihinak guzurra esan ez balegi
gaurko gure erromesonek Kanzuriano badirudi.

–Ixilik egon hadi batxillerrori antxina hil da enterrauta daukon Kanzuriano heureori.

Hortxe kaixan dau ezpatea Kanzurianok itxia.

–Gaurko ezkongei honek ateraten badau ezpatea. Joan da ezkongeiari ez dau atera ezpatia.

–Ia gaurko erromes honek ateraten dauen ezpatea. Joan da erromesa: atera dau ezpatea.

Pozez beterik doña Errosak: –Zu zara senar neurea.

Domingo Zuluaga: *Ibarrangelu kantu eta kontu.*

Bilbao: Ibarrangeluko Udala-Labayru Ikastegia-BBK. 2009.

PERU GUREA

Londresen dot neuk senarra zirin-bedarrak ekarten
bera handik dan artean gu hemen dantza gaitezen.
Oi hau egia! Daigun jira bi Maria.

Kapoiak dagoz erreten oilaskotxuak mutiltzen,
horreek ondo erre-arteetan gu hemen dantza gaitezen.
Oi hau egia! Daigun jira bi Maria.

Neure oilanda nabarra txikarra baina zabala,
zetan hoa hi auzora etxean oilarra donala?
Oi hau egia! Daigun jira bi Maria.

Neuk ugazaba nekusan Izurdiako zubian
hori zestorik urten artean gu hemen dantza gaitezan.
Oi hau egia! Daigun jira bi Maria.

Neure mutiltxo txoria hik esan eustan egia:
gaur gabeen dantzauko zala nire emazte Maria.
Oi hau egia! Hiretzat mando zuria.



TXIRRITA:
NORTEKO TRENBIDEARI

Mila zortzireun irurogei ta
zazpigarrengo urtian
lenengo trena ikusi nuen
Españiyako paritan;
bide pixka bat bistan pasa ta
iñoiz sartua lurpian,
perra berriyak erantsi dizte
andikan orain artian.

Modu orretan jarri zuenak
Norteko ferrokarrilla
jakinduriya aundiya zuen
entendimentu abilla;
gizonik ezin asi liteke
zaldi obiaren billa,
goizian irten Irundik eta
illuntzerako Madrilla.

Linea orrek badauka zenbait
tunel, zubi ta erriyo,
bi biderekin ipiñi dute
sekulan baiño berriyo,
elektrikako indarra eta
orrenbeste guardarrayo,
gau eta egun gelditu gabe
beti zerbaiten karraio.

Trenera lasai balijuake
egiñagatik zartzera,
iyo bidiak ederrak dauzka,
kotxian aixa sartzen da;
amar legua bide pasa ta
ordu beteko etxera,
lengo segunda bezin ederra
dago oraingo terzera.

Eseri aulki ederrak eta
beste gauza bat on-ona,
ezertarako beartzen bada
kotxe bakoitzak komona;
lenguan antxen ikusi nuen
larogei urteko amona,
frantses-euskaldun buruzuri bat,
Benta Berriko monona.

Karbonerarik ez dute bear,
fogonerorik ain gutxi,
or bear dena begiyak erne
eta llabiari eutsi:
abiyatzian iriki eta
allegatutzian itxi,
gau eta egun gelditu gabe
dabil txistu ta irrintzi.

Gizon abilla zen elektrika
sortu zuben maisu ori,
pixka-pixka bat arek graduak
bajatu zizkan subari;
orain indarra leku askotan
kentzen diyote urari,
garai batian merke zan baiña
gaur balio du ugari.

Ola esanaz ur irakiñak
egiten zuen negarra:
prezisu al da beti kalderan
kiskaltzen egon bearra?
Ez daukat beste alimenturik,
sua, kia ta txingarra,
ongi miatzen baldin banauzu
ortzian badet indarra.

Berari beira jarri zitzaion
zabaldurikan besuak,
arrazoi ori ontzat artu du
elektrikako maisuak:
«Badakit zure gau ta egunak
dirala lastimosuak,
ori egiya esan badezu
itzaliko dira suak».

Nere munduko jakinduriya
izan da oso azala,
Jaungoikuari eskatzen diyot,
arren, argitu nazala;
garai batian ez genekiyen
elektrikarik bazala,
orain ur otzak dabilki trena
len irakiñak bezala.



BILINTX: IZAZU NITZAZ KUPIDA

Loriak udan ihintza bezela
maite det dama gazte bat,
hari hainbeste nahi diodanik
ez da munduan beste bat;
inoiz edo behin pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
bihotz guztira banatutzen zait
halako gauza triste bat.

Neskatxa gazte, paregabea,
apirileko arrosa,
izarra bezin dizdizaria,
txoria bezin airoa;
oraintxen baino gusto gehiago
nik ezin nezakeen goza;
zorionian ikusten zaitut,
nere bihotzak, hau poza!

Ez al didazu antzik ematen
nik zaitudala nahiago,
ai, marinela gau ilunean
izarra baino gehiago?
Nere ondoan zauzkadalako
pozez zoraturik nago;
zu ikusteak alegratu nau,
triste nengoen lehenago.

Nik hainbat inork nahi dizunikan
arren ez zazula uste,
nere begiak beren aurrean
beti desio zaituzte;
eguzkirikan ikusi gabe
txoria egoten da triste,
ni ez nau ezerk alegratutzen
zu ikusteak hainbeste.

Aurpegi fina, gorputza berriz
ez dago zer esanikan,
hizketan ere grazi ederra
ezer ez duzu txarrikan;
mundu guztia miratuta ere
zu bezelako damikan,
agian izan liteke baina
ez dut sinisten denikan.

Nere betiko pentsamendua
nere kontsolagarria,
zu gabetanik ezin bizi naiz,
esaten dizut egia;
zu bazinake arbola eta
ni baldin banintz txoria,
nik zu zinakeen arbola hartantxe
egingo nuke kabia.

Amodioak nere bihotza
zureganuntza darama,
herri guztian zeren daukazun
neskatx bikainaren fama;
beste fortunik mundu honetan
ez dut desiatzen, dama:
haur batek berak izan gaitzala
ni aita eta zu ama.

Falta duenak logratutzeko
hitz egitea txit on du,
eta nik ere saiatu bihaut
ote gitezken konpondu;
gaur nagon bezain atrebitua
sekulan ez naiz egondu,
hargatik golpez galdetzen dizut
nerekin nahizun ezkondu.

Ezkondutzeak izan behar du
preziso gauza txarren bat!
Hala esaten ari zait beti
nere kontsejatzaille bat;
halaxen ere haren esanak
oso utzirik alde bat,
ongi pozikan hartuko nuke
zu bezelako andre bat.

Zerorrek ere ongi dakizu
aspaldi hontan nagola
zuregatikan penak sufritzen,
baina ordea hau nola!
Halaxen ere nigana ezin
bigundu zaitut inola,
ni zuretzako argizaia naiz,
zu neretzako marmola.

Nere bihotza urtzen dihoa
eta ez da misterio:
penaren kargak estutu eta
zumua kendutzen dio;
begiak dauzkat gau eta egun
eginikan bi errio,
beti negarra dariotela
zu zaitudala medio.

Zu zeralako medio baldin
joaten banaiz lur azpira,
gero damua eta malkuak
alferrik izango dira;
behin joanez gero hoi birtutez
berriz ez niteke jira,
hori gertatu baino lehenago
izazu nitaz kupida.

XALBADOR:
SORTETXEARI

Oi gure etxe maitea,
orroitzapenez betea,
zorionaren atea!
Zure altzoan iragana dut
sortzetik orai artea.
Izanagatik pobrea,
bertzeak baino hobea
ni sortu nintzan etxea.

Amak, munduratekoan,
etxea, zure xokoan
hartu ninduen besoan.
Geroztik hunat eduki nauzu
zure geriza goxoan.
Nabilalarik kanpoan
ez naiz sosegu osoan,
beti etxea gogoan.

Dudalarik zerbait pena
zu zaitut lagun lehena,
ihesleku hoberena.
Zure alderat inguratzen naiz
ahalik eta maizena.
Munduko leku maitena,
zuri zor dautzut naizena:
izana eta izena.

Arbason eskutik jina,
o egoitza atsegina,
ez dakit zure adina.
Heiek lurpean estali ziren
zutan utzirik arima.
Hain amultsuki egina,
heientzat zer bihotz mina
zutaz gabetzen bagina!

Etxetik hoinbertze gazte,
kanporat zorion eske
zoraturik bazoazte,
bizimoduak behartuz edo
etxea ez aski maite?
Gure faltaz balezate
arrotzek etxe hau bete,
hobendun haundi gintaizke.

Zutaz hainbertze entzuna,
aunitzentzat ezaguna,
o bizipide urruna!
Nik betidanik arbuiatu dut
zure aberastasuna.
Hau da guk deraukaguna,
zu baitan eskas duzuna:
etxeko goxotasuna.

Ene haur onak, badakit
luzaro gabe engoitik
joanen naizela mundutik.
Arbason ganik ukan dohaina
ez utz sekula eskutik,
aldegitean hemendik
heier erraitea gatik:
Etxea han dago xutik!

Pertsu hauk bururatzean,
azken finez orroitzean,
emanen naiz otoitzean:
Etxea, noizbait utziko zaitut
aunitz pena bihotzean;
Jaunak, zure babesean,
nola bainintzan sortzean,
naukala heriotzean.

KEPA ETA IMANOL ENBEITA:
BEHI ZARREN BERTSOAK

Peruk –Komedi tokia da
gure okoilua,
behiak adarrak dantzan
ta hik akuilua;
bi alditan hor habil
mutil kankailua,
esnez ezin betarik
heure katilua.

Manuk –Ni baino gehiago dok
behi zaharrau indarrez
ostikoka eiten jok
gainera adarrez;
esnerik ezin kendu
ta heu hortik parrez...
pazentzirik hartzen gaur
ez jeukoat errez.

P. –Esnia zelan kendu
etxeko danontzat
sukaldian euki dok
plana bestientzat;
orain nere ustian
palta dok heuretzat,
taiu ederra daki
mutil gaztientzat.

M. –Matusalen baino be
zaharragoko behia,
trabes ipinten jaustak
gaur neuri begia;
askan jarriagatik
pentsu-janaria,
atzeko anka zaharrau
jaukok dantzaria.

P. –Bi alditan hasi haz
esnia kentzien,
bietan katilua
dok erdi hutsien;
hi baino abilaurik
ez badok eltzien
dantzan eingo jok horrek
okullu ertzien.

M. –Argi-mutil on barik
postien onduan
hator hona ikasten
ze moduz naguan,
hurreratu ezpanitz
askoz hobe nuan,
ostikoaz jo najok
belaunen buruan.

P. –Esne kentzen hasi haz
harro eta mainez
inori burletako
uste ta ahaleginez,
hi haz mutil abile
bakarrik mihingainez
behi zaharren ostikuak
eraiteko inez.

M. –Berriketia behintzat
hik badok nahikua,
heuk eratsi nahi badok
hemen jauk lekua,
hurreratu ezkerro
errora eskua,
adarrak dantzan dabiz
zoli ostikua.

P. –Nun nahi erakusten dok
abilaren antza,
esnia batzen berriz
aparteko jasa;
garbiro eta bizkor
neurriak gorantza
amak bajeukak laster
pitxer aberatsa.

M. –Segurutik jarrita
gaur edozer diñok
neuk eratsi juat
horraitik ez tinok.
Zikintzeko bildurrez
esku guri pinok
hemen lan egiterik
etxok gura inok.

P. –Mutilen pinizie
horraitik handiyok
esnez janaritzeko
etxeko guztiyok
ganezka jarri ditu...
dorean ontziyok...
lar kendu barik mutil
piska bat utziyok!

M. –Gaztiak ezin leike
ezer zarrarekin,
er negau erain deustak
gaur heure koplakin;
banajuak katilu
ta pitxer honekin,
hor daukok ba lekua
heuk nahi badok ekin.

XABIER AMURIZA: GAI HORREK BADU MAMIA (1980)

Gai horrek badu mamia
baldin ez banago gor;
hainbat jende gizaseme
ikusten ari naiz hor;
ogiaz gain gizonari
anitz gauza zaio zor,
bestela mundu hontara
hobe ez gintezen sor:
ogiakin justizia
behar dugu derrigor;
hau sinisten ez duenik
ba al da hemen inor?

Nik eztakit ogi-puskak
indarririk baduenetz,
baina beste zerbaitekin
bart egin nuen amets;
esperantza zuri daukat
nahiz etorkizuna beltz,
ogi hutsez bizitzerik
nik ez nezake sinets,
gizon batek hortxe ditu
bihotza ta hainbat saihets,
zuek ezetz esan arren
nik esango dut baietz.

Ogia da familian
gauza maitagarria,
baina horrek beharra du
azpian oinarria;
idi gisa daramagu
buruan buztarria,
askatasuna da ogi
eta gure neurria,
inoiz garbi irekitzen
bada horren iturria,
betiko berdetuko da
semaforo gorria.

JON LOPATEGI:
ESKALEARENA (1986)

Erropa zahar hoiekin
etsian nengoan,
beti jantzi ohi naiz ahal
denik ondoen,
akaso bota ditut
behar zen baino lehen,
baina ondorioa
horra hor nabarmen,
triste nago zeren
aitona zahar horren
jokoa gaur zer den
ikusi ondoren
miseria gehiegi
daukagu hemen. (bis)

Triste ikusten zaitut
aitona izanik,
gaizki hartu zaituzte
egia esanik
zer eman nezake nik
zuretzat nigandik?
Ez nuen uste kasu
hori inun zanik,
hartzazu dohainik,
ez eman ordainik,
bihotza jadanik
lehertua daukat nik,
erropa gehiago ere
badut oraindik. (bis)

Besteok sarri juergan
egun eta gaba,
eta zuretzat berriz
hainbeste traba.
Nere etxe ondoan
jo duzu aldaba,

hau da nere bihotzak
dakarren algara,
ta hori non, hara
nere abiada,
justizirik bada,
zu hola nola laga?
Nere traje onenez
jantziko zara. (bis)



ANDONI EGAÑA:
ITSUARENA (1993)

Nere eskuak luzatu ditut
maitearen aurpegira:
hemen ukitu ta han laztandu,
makina bat tira-bira.
Zu ikustea beste gauzarik,
maite, ez nuen desira;
taktuan bidez sentitzen dakit,
beraz ez zaitez kupira.
Esan liteke: «Egina zaude
nik behar nuen neurrirra».
Zure begiei begira
bihotza zauka ari da.
Pentsamentu bat datorkit orain
bihotzan erdi erdira:
holako zerbait izango dela
eguzkiaren dizdira.

Belarrietatik eskua pasa
baneukan borondatea...
Aho gordina, ezpain zabala,
zorianaren atea;
okotz ederra, aurpegi horrek,
behar zun errematea.
Ez da errexera nere eskua
dotore eramatea.
Hortik aurrera ezin ikusi,
neronentzako kaltea.
Ezpain hezurra betea,
denena hola ote da?
Ez da erreza sentimentuak
lau hitzetan esatea:
begiaz ezin ikusi arren,
ederra zera maitea.

Taktuak hainbat esaten zunik
ez nuen espero bela:
zure adatsa ez da kaxkarra
baizik indardun kordela,
zure kopeta zabala dezu,
hizketa ez da motela;
irriparra al dezu beti
dabilkizun erregela?
Zu ezagutu aurretik nintzen
gizon itsu ta ergela.
Poza ematen ditela,
hau ez da une ustela:
ene maitea, tratatu nauzu
gizon oso bat bezela,
zuri eskerrak sinistu det nik
gizon osoa naizela.



MAIALEN LUJANBIO:
ESKUTITZARENA (2001)

«Kaixo Maialen: zer moduz?
oroimena daukat zukan,
presente zauzkadalako
nere mendi abenturan.
Zorionean gabilta
mendiarekin loturan;
badakizu, beti gisa,
nahi ta ezinaren mugan.
Makaluko gailur horrek
gu jartzen gaitu liluran;
etzirako egongo gera
gailurrarekin joskuran.
Har zazu muxu bero bat,
jarri konfiantza gukan».
Zein bero zen muxua ta
nik zeinen hotz hartu dudan!

Negar egin nahi dut baina
ez egitea hobe da,
malkoak jausiko dira
bestela postal gainera,
ta korritu ta borratu
hemengo muxu ta zera...
Intzirika hasi nahi baina
nijoa aguantatzera.
Imajinatu dezaket
kanpo-base hartan bera...
bere ilusio ta amets
guzia jua da gainbehera,
ikurrinarekin jua nahi
zazpi milako batera,
ta orain Makalun dago
heriotzaren bandera.

Irratiak eman zuen
elur-jauzien abisu,
baina zuk ametsarekin
horrenbeste konpromisu
bazendun, ta holakotan
egoskor bat dirudizu;
aurrera segiko zendun,
beti egin dezu berdintsu.
Bizitzan ilusioa
herioren paradisu;
gero arte esaten ere
ez didazu utzi, aizu;
ta zuri azken hitz batzuk
esan nahiean naukazu,
karta bat egingo dizut,
akaso jasoko dezu.



ARALARGO TXABOLA

Behin bi lagun joan ziren Aralar mendira, arratsalde bat pasatzera. Mendian zebiltzala, txabola bat ikusi zuten, ia dena sasiak hartuta. Lagun haietako batek bazekian haren berri berea zuen eta, horregatik, sasiak kendu, eta giltz bat atera poltsikotik, eta zabaldu zuen.

Barruan sartu zenean, giltza eman zion beste lagunari esanez:

—Orain atea itxi zak, ni barruan utzita. Gero joan hemendik, eta bota zak giltz hori itxasora, ahal duan urrutiena. Ni hemen geldituko nauk.

Lagun hura joan zen itxas ertzera, eta besteak esan bezala, han bota zuen giltza uretara. Gero bere etxera etorri zen, ta gehiago ez zen akordatu giltz hartaz.

Urte batzuen buruan, joan omen zen mutil hori Donostira, eta arrandegi batean zegoela, giltz bat atera omen zioten arrain bati tripatik. Orduan akordatu zen mutil hura, giltz bat nola bota zuen itxasora, eta bere laguna nola utzi zuen txabola baten barruan, Aralar mendian.

Arrandegiko nagusiari eskatu zion giltz hura, zer gertatu zitzaion esanez. Hurrengo egunean bertan igo zen Aralar mendira, lagun haren arrastorik ote zegoen. Kosta zitzaion txabola hura ikusten, dena sasiak estalita omen zegoen. Ahal zituen bezala sasiak kendu, eta ateraino iritsi zenean, hots egin omen zion barruan zegoenari.

—Bizi al haiz?

—Oraindik bai, —erantzun zion barruan zegoenak.

Giltzaz atea zabaldu eta barrura sartu zenean, han ikusi omen zuen bestea, bazter batean eserita.

—Ondo egon al haiz? —esan zion sartu zenak.

Oso ondo egon zela erantzun omen zion besteak, bakar-bakarrik sagu batzuek eman ziotela lan pixka bat. Belarri puntak zerbait moztuta omen zeuzkan, saguak janda.

Txabola hura itxi, eta biak herrira etorri omen ziren, arratsaldeko buelta egin bazuten bezala.

LAUSTANEKO JAUREGIA

Orain duela aspaldi, aspaldi, Laustaneko Jaunak, bere jauregia txarre-gi kausiturik, jauregi berri bat egin ziezaioten galdatu omen zien Laminerik.

Laminek baietz: gogotik eginen zutela, eta gau-erdiz geroztikako lehen oilar-kantua gabe oraino, baldin eta Jaunak bere arima emaiten bazien saritzat. Eta Laustaneko jaunak baietz hitzeman zien.

Laminek gau hartan berean hasi zuten beren lana, eta Arradoiko harri eder gorri batzuk polikixko landurik, harri haiek batek bertzeari, bixi-bixia ematen zioten, ahapetik elkarri erranez: «—To, Gillen! —Harzak, Gillen! —Emak, Gillen!» Eta lana bazihoan, bazihoan karraskan.

Laustaneko jauna oilategiko zurubi kaskotik Laminei beha zegoen, halako puska ilun zerbait eskuan.

Hor, Laminek eskuetan hartu zuten azken harria. «—To, Gillen! —Harzak, Gillen!!... Azkena duk, Gillen!...»

Ordu berean, Laustaneko jaunak ixtupa mustuka bati su emanik, argi handi bat eraiki zen betbetan, oilategiaren aintzinean, eta oilar gazte bat, iziturik, ustez eta iguzkia aintzindu zitzaion egun hartan, kukurukuka eta hegalez zaflaka eman zen.

Azken Laminak, jadanik eskuetan zuen azken harria firrindilaka artiki zuen ur-handiko osinera, marraka samin batean: «Madarikatu oilarra!» eta, bere lagunekin suntsitu zen bera osinean.

Harri hura nehork egundaino ezin atera du osinetik, han da beti ur zola zolan, Laminek aztaparrez daukatela, eta Laustaneko jauregiak harri bat eskaz izan du bethiko denboretan.